



IRIZPEN ZK.: D23-017

IRIZPENA, ZINEGOTZI BATEK GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA BAT EMATEKO IZAPIDETU ZEN ESPEDIENTE BATEKO INFORMAZIORA IRISPIDEA IZATEARI BURUZKOA

AURREKARIAK

LEHENENGOA. - 2023ko urriaren 16an Maruri-Jatabeko Udalaren idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horrek honako hau dio:

«(...) udal erregistroan Udal honetako zinegotzi batek aurkeztutako eskabidea sartu da. Horren bidez, erroldatutako pertsona baten alde gizarte-larrialdietarako laguntza bat emateko izapidetutako espedientea eskatzen du.

(...)

Korporazio honetan zalantzak sortu dira (...) eta esku hartzen duten edo ukitzen diren alderdien eskubideei ez diegu kalterik egin nahi edo, behintzat, eskubide horiek behar bezala haztatu nahi ditugu; horrenbestez, (...) eskatzen dizuet txostena egin dezazuela honako honi buruz:

-Ea espedientearen kopia bat zinegotzi bati entregatzea tratamendu-egintza bat den ala, alderantziz, zinegotzi hori Korporazioko kide izateagatik datuen lagapenik egon ez dela uler daitekeen.

-Datuak hirugarren batzuei laga zaizkiela ulertuz gero, lagapen hori egin ahalko litzatekeen ala ez, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluan azaltzen den babes-araubide bereziak babestutako datuak direlako.

-Espedienteak ukitzen duen pertsonaren intimitaterako eskubidea gailentzen bada zinegotzi batek informazioa jasotzeko duen eskubidearen aurrean, irispidea izateko baimena eman al daiteke baldin eta ukitutako pertsonak onartzen badu?

-Eta azkenik, espedientearen kopia bat laga beharrean, gizarte-langileak txosten bat egin al dezake ukitutako pertsonaren informazio sentsiblea ezkutatuta?»

BIGARRENA. - Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».



Beraz, goiko araudi hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

GOGOETAK

I

Datu pertsonalak babesteari buruz gaur egun honako lege hauek daude indarrean: bata da 2018ko maiatzaren 25az geroztik estatu kideetan zuzenean aplikatu behar den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra); eta bestea da abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, 2018ko abenduaren 7az geroztik indarrean dagoena.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak 4.1 artikuluan honela definitzen du datu pertsonala: *«persona fisiko identifikatu edo identifikagarri (“interesdun”) bati buruzko informazio guztia; persona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».*

DBEOren 4.2 artikulua xedatzen duenez, datu pertsonalen tratamendua da *«datu pertsonalen ganean edo datu pertsonalen multzoen ganean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabiltza zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».*

Beraz, datu pertsonalen tratamendua eginez gero, datuak babesteari buruzko araudia bete beharko da.

Maruri-Jatabeko Udalak egiten duen kontsultaren gaia da gizarte-larrialdietarako laguntza bat emateko izapidetutako espediente bateko datuak Udal horretako zinegotzi bati komunikatzea, kontuan hartuta espediente horretan datu-kategoria berezien barruko informazioa edo eskatzailearen zaurgarritasun-egoerari buruzko informazioa ager daitekeela: osasunari buruzko datuak, egoera ekonomikoa, familia-harremanak eta abar.

Beraz, azaldutako uzia, halako datuak komunikatzea, ondorio guztietarako, datu pertsonalen tratamendua da eta, horregatik, datuak babesteari buruzko araudian jasotako xedapenen mendean egongo da.

DBEOren 5. artikuluan datu pertsonalen tratamenduari buruzko printzipioak ezartzen dira. Printzipio horien arabera, datuen tratamendua legezkoa, fidela eta gardena izango da. Halaber, bildu ondoren, datuak helburu zehatz, esplizitu eta legitimoetan aplikatu behar dira, eta ezin izango dira helburu horiekin bateragarria ez den moduan erabili. Horrez gain, datu pertsonalen tratamenduak datuen minimizazioaren printzipioa bete behar du; hain zuzen ere, datu horiek egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurritan mugatuak izan



beharko dute, lortu nahi den helburuarekin alderatuta eta, hori hala izateko, neurri tekniko eta antolakuntzakoak aplikatuko dira.

II

Lehenago esan denez, Udalak egindako kontsultaren gaia da ea zilegi den gizarte-larrialdietarako laguntzaren prestazioa onartzeko prozeduretan jasotako datuak zinegotzi bati komunikatzea. Benetan, kontsultaren xedea da oinarrizko bi eskubideren arteko tira-bira ebaztea: Konstituzioaren 23. artikulua arautzen duen parte-hartze politikorako eskubidea eta 18.4 artikuluan onartzen dena, datu pertsonalak babesteko eskubidea, alegia.

«23. artikulua.

1. Herritarrek arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, zuzen-zuzenean nahiz ordezkari bidez; ordezkariok askatasunez hautatuko dira, sufragio unibertsalaren bidez, aldizka egindako hauteskundeetan.

2. Eskubidea dute, orobat, berdintasun-baldintzetan funtzio eta kargu publikoetara heltzeko, legeek ezartzen dituzten betekizunekin».

Parte-hartze politikorako eskubide hori apirilaren 2ko 7/185 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenaren 77. artikuluan agertzen da. Manu horrek ezartzen duenez, toki-korporazioetako kide guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku egon eta beren eginkizunak garatzeko beharrezko aurrekariak, datuak edo argibideak alkate edo lehendakariarengandik edo gobernu-batzordearengandik lortzeko eskubidea.

Artikulu horren azken tartekiari erreparatuta zera esan daiteke: toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak ez dio zinegotziek udal informazio guztia edonola eskuratu dezaketenik. Aldiz, legeak zehurtiazko irizpide bat ezarri zuen, batetik, eskubidea jaso egin zuelako eta, bestetik, eskubidea egikaritzeko prozedura ezarri zuelako. Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren Erregelamendua (AJA) onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 14., 15. eta 16. artikuluek aurreko artikulua nola garatzen duten ikusiz gero, ondorio bera ateratzen dugu. Bestalde, 15. artikulua dio zinegotziei nahitaez eman beharko zaiela informazioa, zinegotziek ordezkariaren bat edo kudeaketa arloko erantzukizunen bat badute esleituta, eta informazioa esleitutako arlo horiei buruzkoa bada. Horrez gain, dio zinegotziak kide anitzeko organoren bateko kide badira, nahitaez eman behar zaiela organoetan aztertuko diren gaiei buruzko informazioa eta dokumentazioa, bai eta udaleko organo orok hartutako erabakiei edo emandako ebazpenei buruzkoa ere. Azkenik, herritar ororentzat eskuragarria den informazioa ere eman egin behar zaie.

Horri buruz, Auzitegi Gorenak (besteak beste, ekainaren 27ko 1541/2016 Epaian) zera onartu du: toki-korporazioetako kideek karguan aritzeko behar duten informazioa eskuratzeko eskubidea, 77. artikulua oinarrizko eskubide gisa onartzen duena, funtsezkoa da korporazio horien funtzionamendu demokratikorako eta Konstituzioaren 23.1 artikulutik eratorritako gai publikoetan parte hartzeko oinarrizko eskubiderako. Informazio egokia izatea funtsezko baldintza bat da osoko bilkuretako eta gainontzeko kide anitzetako organoetako eztabaidetan eta bozketetan parte hartzeko, kontrol eta fiskalizazio eginkizunak behar bezala burutzeko edo dena delako zinegotziak esleituta dituen kudeaketa arloko ardurak baliatzeko, azken finean, erantzukizun zibilaren eta zigor-



erantzukizunaren menpean dago beren kargua betetzerakoan egindako egintza eta ez-egiteak direla-eta (TAOLen 78. artikulua). Horregatik, jurisprudentzian beti modu zorrotzean aztertu dira eskubide hori mugatzen edo murrizten den kasuak (epai askoren artean, 1995eko otsailaren 9koa, 1994ko abenduaren 27koa eta 1993ko azaroaren 24koa).

Araubide juridiko horren arabera, zinegotzien informazio-eskubideak lotura estua eta zuzena dauka euren eginkizuna betetzearekin. Kasu honetan, eginkizun hori da gizarte-larrialdietarako laguntzen kudeaketarekin lotutako eskumenak egikaritzea, hain zuzen ere eskumen hori udalerriek esleituta baitute apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 17. artikulua arabera. Gainera, abenduaren 22ko 14/2022 Legeak, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarenak, sistema hori osatzen duten elementuak arautzen ditu, horien artean gizarte-larrialdietarako laguntzak, eta horiek aitortu eta kontrolatzeko eskumena eskatzaileak errolda eta benetako bizilekua dituen udalerriko udalari esleitzen dio.

III

Zinegotziek duten parte-hartze politikorako eskubidea aztertutakoan, sakonago aztertu behar dugu gure kasuan eskubide hori egikaritzeak nola ukitzen duen datuak babesteko oinarrizko eskubidea.

DBEOren 5.1 artikuluan onartzen den zilegitasun, fideltasun eta gardentasunaren printzipioaren arabera, datuen tratamendua legezkoa izango da eta, beraz, DBEOren 6. artikuluan azaltzen den oinarri legitimatzaileetako baten arabera egin beharko da.

Horri buruz, nabarmendu behar dugu DBEOk 6.1 artikuluan ezartzen duela zein kasutan dagoen legitimatuta datuen tratamendua. Hona hemen kasu horiek:

«1. Tratamendua zilegia izango da soilik baldin eta baldintza hauetako bat, gutxienez, betetzen bada:

a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.

b) Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.

c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.

d) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak babesteko.

e) Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

f) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen interes legitimoei erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarrizko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean».

Udalak zinegotziari datuak komunikatzea zilegi da toki-administrazioaren eginbeharra delako hautetsiari behar duen informazioa ematea interes publiko bat betetzeko, hau da, parte-hartze politikoa egikaritzeko.



Hala ere, aztergai dugun kasuan datu-kategoria bereziak tartean daudenez, datu horien tratamendurako gaitasuna ematen duten kasuetako batera jo behar dugu, DBEOren 9.2 artikulura.

Manu horren g) apartatuan xedatuta dagoenez, datuen tratamendua egin ahalko da *«beharrezkoa bada funtsezko interes publiko berezi bati buruzko arrazoiak direla medio, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean oinarri hartuta, zeinak proportzionala izan behar baitu bilatzen den helburuarekin; datu-babeserako eskubidearen muina errespetatu behar baitu, eta neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar baititu interesdunaren funtsezko interesak eta eskubideak babesteko»*.

Gure iritziz, datu sentzibleen tratamendurako legitimazioa ematen duen funtsezko interes publikoa, hain zuzen ere, parte-hartze politikora eskubidea egikaritzean datza, eta lehenago esan denez, Auzitegi Gorenak eskubide hori egikaritzea funtsezkotzat jotzen du toki-korporazioen funtzionamendu demokratikorako. Horren haritik, nabarmentzekoa da Auzitegi Gorenaren 2022ko otsailaren 10eko Epaia (EDJ 2022/507451), zeinaren bidez erantzuten baitzaio auzi honi. Bada, Auzitegi Gorenaren iritziz, zinegotziek espedienteetara eta dokumentuetara irispidea izateko eskubidea onartzen da TAOLen 77. artikuluan eta AJAren 14. artikuluan, baina baldintza ez da zertan izan udal osoko bilkurak eztabaidatu behar dituen gaiei buruzko espediente eta dokumentuak izatea.

Zinegotziak informaziora irispidea izateko eskubidearen helburua da «bere eginkizunak egikaritzea, jakinaren gainean egonda, baina inolako osagarririk gehitu gabe, udal zerbitzuetan agertzen den guztiari buruzko informazioa izateko helburuaz harago». Eta Auzitegi Gorenaren 1998ko azaroaren 8ko Epaiak dioenez –Auzitegi Gorenak orain hori berresten du–, «jarduera publikoan modu efektiboan parte hartzen da gai zehatzen sorta zabal batean, horien artean nabarmentzekoak direla udal jarduerak fiskalizatzeko eskubidea eta udal zerbitzuetan agertzen diren aurrekariak kontrolatzeko, ikertzeko, aztertze eta informatzeko eskubidea, dela kontrol-lan hori egiteko, dela etorkizunean hartu beharreko erabakietarako dokumentatzeko».

Lehenago, Auzitegi Gorenaren 1997ko maiatzaren 28ko Epaiak zera zioen espresuki, Legearen arabera zinegotziek eskubidea dute informaziora irispidea izateko, baldin eta helburua eginkizun hori egikaritzea bada, baina eginkizun hori ez da mugatzen «gobernu-organoen eguneko gai-zerrendan agertzen diren gaiak aztertzea eta, gainera –zalantzarik gabe–, eginkizun horri dagokio egokitzen duten dokumentazioa aztertzea hitzaldiak prestatzeko edo, ahal dela, eztabaidagai berriak txertatzeko».

Epai horiek irakurrita, argi eta garbi ondorioztatzen da zinegotzien informazio-eskubidea funtsezko interes publikokoa dela eta, hortaz, oinarri legitimatzailea dela, baita datu-kategoria berezien tratamendurako ere.

IV

Azaldu da zein den oinarri legitimatzailea, gizarte-larrialdietarako laguntzen prozedura batean agertzen diren datuen tratamendua egiteko eta, hala, zinegotzi baten eskaera betetzeko. Hala eta guztiz ere, berriro ere gogora ekarri behar da toki-araubidearen oinarriari buruzko legean ez dagoela jasota udal informazio guztia edonola eskuratu ahal denik.

Aztertu den zilegitasunaren printzipioaz gain, kontsultaren xede den datu-tratamenduari datuak minimizatzeko printzipioa aplikatu behar zaio. Printzipio horren arabera, datu



pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera.

Printzipio horrek behartuta, eskatzaileak lortu nahi duen helburuaren eta asmo hori betetzeko beharrezkoa den informazioaren arteko oreka egon behar da. Tratamenduaren arduradunak zehaztuko du, espedientean dagoen informazioa kontuan hartuta, zein datutaraino duen gaitasuna korporazioko kide horrek, halako moduz non zenbait kasutan informazio jakin bat disoziatzea beharrezkoa izan daitekeen.

Kontsulta egin duen udalak zera jakin nahi du: espedienteak ukitzen duen pertsonaren intimitaterako eskubidea gailentzen bada zinegotzi batek informazioa jasotzeko duen eskubidearen aurrean, ea irispidea izateko baimena eman al daitekeen, ukitutako pertsonak onartuz gero.

Galdera horri erantzuteko, gogora ekarri behar da DBEOk honela definitzen duela interesdunaren adostasuna: «*interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena*».

Hala eta guztiz ere, orokorrean Administrazioaren eta herritarren artean harreman desorekatua dagoenez zaila da adostasunaren baldintza betetzea, hau da, interesdunak borondate-adierazpen askea ematea, are gehiago aztergai duguna bezalako kasuetan; hain zuzen ere, halako kasuetan batzuen eta besten arteko harremanean pisu handiagoa dauka Administrazioak, kontuan hartuta ukituen zaugarritasun-egoera. Hori guztia dela eta, ukituaren adostasuna nekez izango da tratamenduaren legitimazio-oinarria.

Azkenik, Udalak galdetzen du ea zinegotziaren eskaera betetzeko gizarte-langilearen txosten bat entregatu ahal den, espedientearen kopia baten ordeztu. Gure iritziz, aukera hori ez doa datuak babesteko araudiaren kontra, baldin eta zinegotziari bidea ematen badio bere eginkizunak betetzeko, eta minimizazioaren printzipioaren arabera administrazio-espedientera irispidea izateko mugak betetzen badira.

Laburbilduta, kasu honetan, arestian azaldu diren gogoeta juridikoei erreparatuta, eta informazio disoziatua edo gizarte-langilearen txostena nahikoa ez bada, eskatzaileari baimena eman beharko zaio irispidea izateko, baina lortu nahi den helbururako behar-beharrezkoak diren datuak tratatu beharko dira, ez gehiago eta, hala, pertsonen pribatutasunean bidezkoa ez den moduan esku sartzea eragotziko da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 7a